

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



■ HERNANI ODOL EMATEA

Apirileko odol ematea asteartean

Hernanin etzi izango dute aukera odol emateko, 18:30-etan hasi eta 20:30etara, ambulategian odola emateko edota organo donante egiteko. Martxoan 52 odol emate izan ziren, horietako sei berriak. ||

■ ERGOBIA EUSKAL JAIA

Egun osoko festa, urtebete ospatzeko

Urtebete egin du Ergobi Gastronomi-Kultur Elkarteak, eta ospatzeko, Euskal Jaia egingo da gaur, egun osoan zehar, Ergobiako Plazan. 11:00etatik aurrera izango da festa giroa: pintxoak, sukaldaritza tailerra, sagardoa, ipuin kontalaria, herri kirolak... ||

■ HERNANI SAHARA

Gaur arte epea, haurra hartzeko

Oporrak Bakean programa martxan du Udalak, uztailean eta abuztuan haur saharar bat etxean hartzeko. Eta harrera familia izan nahi dutenek, gaur arte daukate epea. Izena emateko edo informazio gehiagorako, 943 33 70 17, marijo-m@hernani.eus, edo Plaza Feministatik (Aristizabal, 7) pasa. ||

■ HERNANI AZOKA

Disko eta liburu azoka, Plaza Berrin

Plaza Berrin liburu eta disken azoka antolatu da gaurko, 10:30etatik 14:00etara. Postuan eskuragarri zaingo dira egoera onean dauden 1.000tik gora liburu, diska eta CD. ||

■ URNIETA

Idiazabal gaztaren sekretuak, berriz

Bisita gidatua antolatu du Gipuzkoako Parketxe Sareak, Adarrazpi gaztandegira berriz, 11:00etan. Xoxokan kokatua dagoen Adarrazpiko artzain eta gaztagileen eskutik, gertutik ikusiko dituzte latxa ardiak eta arkumeak, baita besotan hartu ere, nahi duenak; eta ezagutuko dituzte Idiazabalen sekretuak. ||

■ HERNANI TXISTULARI GAZTEEN TXAPELKETA

Txilibitak irabazi du taldekako txapelketa

Hernanikoak beste lau talderen artean gailendu dira. Manex Iturrieta eta Leire Retegik jaso dituzte beste bi kategorietako sari nagusiak. Txistu hotsek hartuko dute herria goizean jaialdia borobiltzeko.

TXISTULARI gazteak izan ziren protagonista atzo, Hernaniko Txistulari Jaialdiaren aurreneko egunean. Milagrosan egin zuten Txistulari Gazteen Txapelketa eta taldeko txapela etxean geratu zen Txilibitak eraman baitzuen sari nagusia.

Manex Iturrieta durangarrrak jaso zuen sari nagusia, 12 urte arteko bakarlarrietan; Leire Retegi leitzarrak 13-16 urte bitartekoetan pasa den urteko garaipena errepikatu zuen.

Gaur, berriz, txistulari gazteak bakarrik ez, adin guztietakoak, eta Euskal Herri osotik etorritakoak, aterako dira kalera, Txistulari Topaketarekin. Goizeko 10:15etan abiatuko dira, herriko kaleetan eta inguruko auzoetan dianak jotzera. 12:30etan aterako dira berriro kalejiran, Plazan bukatzeko, ttun-ttunarekin. ||



Julen Beraza, Enara Arruti eta Manex Zabaleta Txilibita taldeko hernaniar txistulariak, txapelkun.

Argazkia: Antolatzaileak

■ HERNANI ERRUGBIA

Santanderretik pasatzen da salbazioa

Hernanik Independenteren aurka jokatuko du gaur, 12:00etatik aurrera eta irabaziz gero maila mantentzeko bidean pauso ikaragarria izango da. Hernanitik autobusa irtengo da 08:00etan.

HEINEKEN Liga azken txanpan dago murgilduta eta partidu guztiak dira hil ala bizikoak. Hernani jeitsiera ekiditeko borrokan dago murgilduta eta gaur, 12:00etan, Santanderren jokatuko du Independenteren kontra. Salbazioa Kantabriako hiriburutik pasatzen dela esan daiteke eta Hernanik ez du hori lortzeko aukera galdu nahi.

Garaipenaren lau edo bost

puntuak eskuratuz gero aurrera pauso ikaragarria izango litzateke helburu nagusia lortzeko bidean.

Sailkapena estu-estu

Hernanik, hiru partiduren faltan, 33 puntu ditu; La Vilak 32 eta Bizkaia Gernikak 25, bizkaitarrak partidu bat gutxiagorekin. Cisneros, bederatzigarren dago 34 punturekin eta hauek ere partidu bat gehia-

goren faltan daude. Estu-estu dago sailkapena.

Santanderren irabaztea ez da ezinezkoa, ikusita bertako taldearen bolada. 2019an ez dute partidurik irabazi eta berdinketa bakarra lortu dute azken zazpi partiduetan. Hala ere irabaztea zaila izango da, bolada txar horri buelta eman eta salbazioa ziurtatu nahi baitute.

Hernaniko zaleak 08:00-

etan irtengo dira autobusez eta jokalariei ez zaie animorik faltako San Roman zelai berezian.

Ordu berean La Vilak Ordizian jokatuko du eta Gernikak etxean, Urbietan, hartuko du Santboiana. Hernaniren partidua ikusteko hemen dago aukera: ||



GAUR Eguraldiak ildo beretik jarraituko du eta eguzkia izango da jaun eta jabe. Tenperatura aldaketarik ez eta aratsaldean iparekialdeko haizea sartuko da eta freskatu egingo du. **Min.9° / Max.18°**

BIHAR Eguna eguzkitsua esnatuko da eta goiza nahiko lasai joango da. Aratsaldean bero-lainoak garatuko dira. Ekialdeko haizea ibiliko da. Tenperatura aldaketarik ez. **Min.9° / Max.18°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Alzpuru** Latsunbeberri, 11 (Hernani) **943 336077** **Gauzez:** **Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**



HERNANI SANTA BARBARA

20 metroko babesgune bat egingo da harrobiko frontearen segurtasuna bermatzeko

Azterketa geoteknikoaren arabera egitura ezegonkorra da, lur-jausiak egon daitezke eta horren aurrean zenbait konponbide proposatzen ditu.

HERNANIKO Udalak, Santa Barbarako harrobia berreskuratu nahi zuen eta bertan zernolako erabilerak eta azpiegiturak egingo diren erabakitze-ko parte-hartze prozesu bat bultzatu zuen 2018ko uztailetik urriara arte. Bertan adostu zen, parkearen proiektuari ekin aurretik, harrobiko fronteari buruzko azterketa geotekniko bat egin behar zela, segurtasuna bermatzeko aldera.

Azterketa geotekniko hori lkerlur enpresari enkargatu zitzaion 2018ko azaroan. Geologian eta geoteknikan aditutako enpresa horrek emaitza aurkeztu berri du. Azterketaren arabera, egitura hori ez da egonkorra eta luiziak egon

daitezke noiznahi.

Langa bat eraikiko da ezpondaren behealdean, harriei bertan eusteko

Enpresak proposatzen dituen irtenbideen artean, segurtasuna eta inpaktu paisajistikoa aintzat hartuta, bat hobetsi dute udal teknikariak: hormatik 20 metro inguruko babesgune bat eraikitzea proposatzen duena. Gune horretara sartzea debekatuta egongo da. Horretaz gain, segurtasuna areagotzeko areka edo langa bat eraikiko da ezpondaren behealdean, egon daitezkeen lur-jausien harriei bertan eusteko. Halaber, ondoan lur mendixka bat ere egingo da

zuloak altuera gehiago izan dezan.

Parte-hartze prozesuan, herritarrek erabaki zuten aisi-aldi gunearen erabilera desberdinak: jolaserako eta egoteko gunea (mokadutxo bat jateko mahaiak, egurrezko jolasak, txirristak, tirolinak...); jarduera fisikorako eta kirola praktikatzeko gunea (bizikleta parke bat); naturaz gozatzeko gunea (hamakak eta izarren behatokia). Gune horiek guztiak oinezkoak eta bizikletak elkarbizitzeko ibilbide baten barruan geldituko dira.

Konplexutasuna haundia du proiektuak eta harrobiaren frontearen babesgune hori kontuan hartu beharko du. ||

HERNANI TILOS 7 PASA

Tilos 7 Pasa txapelketa bihar hasiko da hiru partidurekin

Astelehenetik ostegunera jokatuko dira 2garren mailako, 1go mailako eta maila herrikoieko partiduak. Neskek apirila bukaeran hasiko dira.

AURTEN ere 60 bikotek hartuko dute parte Tilos 7 Pasa pala txapelketa herrikoian eta bihartik ostegunera, ekainera bitartean, 100 partidu jokatu-ko dira. Udaberriaren usainean eta eguzkiaren printzek eguna luzatzen dutenean jartzen da martxan txapelketa, eta aurten, bihar, apirilaren lean emango zaio hasiera. Astelehenetik ostegunera hiru partidu jokatu-ko dira egunero lehendabiziko bi asteetan Tilosetan 18:30etatik aurrera. Apirila eta ekaina bitartean 100 partidu jokatu-ko dira.

Hirugarren astean Aste Santuan sartzen dira eta horrek egutegia aldatuko du apirileko azken hiru asteetan.

15 bikote daude 1go mailan, 36, 2garren mailan, 9 herrikoian eta 4 nesketan

Tilos 7 Pasa txapelketa aurten lau mailatan jokatu-ko da; bi



Neskek txapelketa beranduago hasiko dute.

gizonezkoetan, bat emakumezkoetan eta beste bat maila herrikoian.

Aurten Ramos-Zubimendi bikote hernaniarra berriz ere elkarrekin ariko da Ramosek pasa den urtean atsedena hartu eta gero. Hala ere pasa den urteko bikote irabazlea; Elejalde-Navarro ere ariko dira. Bi bikote faboritoak dira.

Biharko partiduak hauexek izango dira

Txapelketa Urdiain-Pavon bikoteak Iraola-Karim aurka jokatu-ko duenarekin hasiko da. Ondoren Salgado-Arizmendi/Arregi-Urreagaren arteko partidua izango da eta eguna amaituko dute Erdozia-Loranez/Iurramendi-Iurramendiren kontra. ||

HERNANI UDALA

Gaur bukatuko du Udalak hilobien errolda eguneratzeko prozesua

Orain urtebete hasi zuen Hernaniko Udalak, 2018 urtearen hasieran, hilobiratze unitateen errolda eguneratzeko prozesua. Horretarako, hilerriko errolda xahutzeko lanak hasi zituen eta gaur bukatuko du prozesua. Eta behin aldaketa guztiak egin ondoren, publiko egingo du eguneraketa, hilabeteko epea utziz edozein erreklamaziorako, aurreratu du. ||

HERNANI MUS

Xalapartako txapelketarako izenematea

Xalaparta Elkarteko Mus Txapelketarako izena eman daiteke. Izena eman nahi duenak elkarteko iragarlekuan apuntatu behar da. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

ANA GONZALEZ DE LANGARICA

Orain eta beti gure bihotzean

TXUS, ESTHER, ELENA, ANA ETA SARA

Hernanin, 2019ko martxoaren 31n

ANA GONZALEZ DE LANGARICA

Beti gurekin

ZURE LAGUNAK

Maje, Rosa, Ana, Elena, Veli, Yolanda, Isa, Karmele, Marian, Rubia eta Esther

Hernanin, 2019ko martxoaren 31n

AXIER SANTANO OKARIZ

*Bidai goxoa izan "Axi".
Ez ditugu begi haundi hoiek inoiz ahaztuko.
Asko maite zaitugu.*

BEÑAT, AMATXO ETA AITATXO

Hernanin, 2019ko martxoaren 31n

ESKERTZA

Balbino Azkarate Izeta

*Orain egun gutxi hil zen
- Goian bego -*

Balbinoren emazteak, seme-alabek, bilobek eta gainerako ahaideek eskerrak eman nahi dizkizuegu modu batera edo bestera gure ondoan izan zareten guztiei eta baita elizkizunetara etorri zineten guztiei ere.

ESKERRIK ASKO GUZTIAGATIK

Hernanin, 2019ko martxoaren 31n

IRAGARKI MERKEAK

Tailer mekanikoa salgai Hernanin. Lizentziak indarrean ditu eta makineria guztia prest. Bezero kartera haundia eta errentagarritasun frogagarria. **Deitu: 656 709 251**

Itigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**